

Abenduaren 25ean **JAUNAREN JAIOTZA**

Agurra

Gu salbatzeko jaio den Kristogan agertu zaigun Jainko gure Aitaren bakea eta maitasuna zuekin.

Sarrerako Oharpena

Pozik gaude gaur: Jainkoa-gurekin da, gure arteko egin da, gu Bere arteko egiteko.

Bera da gu argitzen gaituen zuzentasun eguzkia, herri guztiei bidea agertzera etorria. Onar dezagun, ospa dezagun, gora dezagun!

(Oharpenaren ordezt, nahiago bada, egin daiteke beste sarrera hau "kalenda" zaharraren erara emana).

Senideok, berri on bat, herri guztiarentzat poz handi bat, iragartzen dizuegu; pozkarioz entzun ezazue. Milaka urte igaro ziren, hasieran, Jainkoak zerua eta lurra sortu eta gizakia bere antz-irudira egin zuenetik; eta milaka urte uholdea atertu eta Goi-goikoak, itunaren eta bakearen seinale, ortzadarra distirarazi zuenetik; Erroma hiriaren eratzearen 752garren urtean, Octavio Augustoren menpeko 42garren urtean, lur osoan bakea nagusi zenean, munduaren seigarren adinean, orain 2020 urte, Erromatarren menpean zegoen Israelgo herri xume den Judako Betleemen, aska batean, ostaturik ez zutelako, Daviden jatorrikoa zen Joserren emazte Maria Birjinagandik, Jesus jaio zen; betiereko Jainkoa, betiereko Aitaren Semea eta egiazko gizona; Mesias eta Kristo zeritzana, gizakiek itxaron zuten Salbatzailea. Berari aintza eta gorespen gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Damu-otoitza

Jaunak agertu digu bere erruki handia Semea gure artera bidaltzean. Dohain miresgarri hori eskertuz aitor dezagun bekatari garela.

—Jesus Jauna, Mariagandik jaio / eta gure senide egin zinen Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure ahuleriak ezagutzen / eta maitasunez ulertzen dituzun Gizonaren Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu guztiokin familia bat bera egiten duzun / Aitaren Lehen Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Aintza

Kanta dezagun pozez beterik Eliza osoarekin, aingeruek gau santu hartan Betleemen abestu zuten bezala: «Aintza zeruetan».

Otoitza

(Bezpera-arratsaldeko Meza)

**Salbamenaren esperantza pozgarri
urtero gure bihotzean suspertzen duzun Jainkoa,
egizu, zure Seme bakarra gu salbatzera datorrenean
pozik onartzen dugun bezala,
gu epaitzera etorriko denean ere
har dezagula uste osoz.
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

(Gauerdiko Meza)

**Egiako argiaren distiraz argitu duzu, Jauna, gau santu hau;
egizu,
lur honetan gertakari honen argi distiratsua ikusi dugunok
goza dezagula zeruan haren aintzaren ederra.
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

(Goizeko Meza)

**Jainko ahalguztiduna,
haragi egin den zure Hitzaren argi berriak bete gaitu;
egizu, gure bihotzetan argi egiten duen fedeak
distira dezala gure egintzetan ere.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

(Eguneko Meza)

**Oi Jainko, era miragarrian moldatu duzu giza duintasuna
eta era miragarriagoan eraberritu;
egizu, gizatasunean gurekin bat egin duen zure Semeak
bat egin gaitzala berekin jainkotasunean.
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Gizaldietan isilik egondako Hitza, Profetek fedez itxarondakoa, Maria Birjinagandik jaio zaigun Kristo da. Bera da artzainei agertua; Bera, herri guztiei adierazia; Bera Elizak pozkarioz altxor bezala gorde eta hots egiten duen salbamenezko Hitz bizia. Entzun dezagun arretaz.

Gauerdiko, Goizeko eta Eguneko Meza ospatzen denean, Irakurgaiak har daitezke hiru Mezatarako emandakoen artetik. Bezpera arratsaldeko Meza ospatzean,

bertan egongo den jendeak hori izango badu Eguberri-Meza bakarra, egokiago gerta daiteke 25erako ematen diren hiru ebanjelioetako bat hartzea. Hemen, lau meza horietako testuak eskaintzen ditugu.

(BEZPERA-ARRATSALDEKO MEZA)

Lehenengo irakurgaia (Is 62, 1-5)


Isaias profetaren liburutik

Sionen maitez ez naiz isilduko, Jerusalem maitez ez naiz geldi egongo; Haren zuzentasuna distira bezala argituko den arte, Haren salbamera zuzia bezala biztuko den arte.

Ikusiko dute herriek zure zuzentasuna, erregeek zure ospea; izen berria ezarriko zaizu, Jaunaren ahoak emana. Koroa eder izango zara Jaunaren eskuan, errege burestun, zeure Jainkoaren eskuan.

Ez dizute berriz deituko «Utzia», ezta zure lurraldeari ere «Hondamendia». «Nire atsegina» deituko dizute zuri, eta «Senarduna», zure lurraldeari. Atsegin izango baitu zuregan Jaunak, eta senarduna izango da zure lurraldea. Mutil gaztea neskatzarekin ezkontzen den bezala, zure eraikilea zeurekin ezkonduko da; senarrak emaztearekin hartzen duen poza, zurekin hartuko du zure Jainkoak.

Erantzun-salmoa (Sal 88, 4-5. 16-17. 27 eta 29)



Jau - na, zu - re mai - ta - su - na a - bes - tu - ko dut
 be - ti - ren be - ti.



«Egin dut nire hautatuarekin ituna,
David nire morroiari zin egin niona.
Betiko sendotuko dut zure hazia,
menderen mende eraikiko zure aulkia». R/.

Bai dohatsu, Zuri pozez oihu egiten dakien herria:
Jauna, zure aurpegiko argian dabila.
Zure izenaz dira beti pozten,
zure zuzentasunez harrotzen. R/.

Berak deituko nau: Zu zaitut Aita,
ene Jainko, nire salbamenaren Harkaitza.
Gordeko diot beti nire maitasuna,
zintzo edukiko egin nion ituna. R/.

Bigarren irakurgaia (Eg 113, 16-17. 22-25)

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Paulo Psidiako Antiokiara iritsi zen eta, hango sinagogan zutiturik eta isiltzeko keinu eginda, honela hitz egin zien: «Israeldarrok eta Jainkoaren beldur zaretanak, entzun: Israel herri honen Jainkoak gure aurrekoak aukeratu zituen, eta herria ugaritu zuen, Egipton arrotz zirelarik, eta bere besoaren indar handiaz atera zituen handik.

Gero, David eman zien errege, harentzat aitormen hau eginez: "Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nire agindu guztiak beteko dituen".

Hitzemana zeukanez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus. Berau etorri baino lehen, Joanez bihotz-

berritzeko bataioa hots egin zion Israel osoari. Eta bere bizitza bukatzera zihoanean, honela zioen Joanek: "Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor Haren oinetakoak askatzeko ere"».

Aleluia

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

Bihar ezereztua **izango** da
lurraren gaizta**keria**;
eta munduaren Salbatzailea **izango** da
gure **erregea**. R/.

Ebanjelioa (Mt 1, 1-25)

(GAUERDIKO MEZA)

Lehenengo irakurgaia (Is 9, 2-4. 6-7)

Isaias profetaren liburutik

Ilunpetan zebilen herriak argi handi bat ikusi zuen; herio itzalean bizi zirenak distira batek argitu zituen.

Gehitu zenuen poza eta handitu, atsegina; pozetan dabilta zure aurrean, igitai aroan izaten den pozez, harrapakinak banatzekoan izaten den atseginez. Puskatu baituzu haren uztarri astuna, haren bizkar makila, eta zapaltzailearen zigorra, Madiango egun hartan bezala.

Haur bat jaio baitzaigu, seme bat eman zaigu; aginpidea sorbaldan darama; eta haren izena: Kontsejatzaille harrigarri, Jaungoiko indartsu, Betiko Aita, Bake errege. Bere erregetza zabal dezan, amairik gabeko bakea ezarriz, Daviden aulkian eta bere herrian. Sendotu eta indartu dezan, zintzotasunez eta zuzentasunez, gaurdanik eta betidaino. Diren guztien Jaunaren maite minak egingo du hau.

Erantzun-salmoa (Sal 95, 1-2. 3 eta 11-12a. 12bcd-13)

Gaur ja - io zai - gu Sal - ba - tzai - le - a Kris - to, gu - re

Jaun e - ta Ja - be - a

Kanta Jaunari kantu berri,
kanta, lur osoa, **Jaunari**.
Kanta Jaunari, bedeinka Haren **izena**,
iragarri egunez egun, Harengandiko sal**ba**mena. R/.

Zabaldu Haren ospea atzer**ri**etan,
Haren mirariak herri guz**ti**etan.
Poztu bedi ortzia, alaitu lurra, '
orro egin beza itsasoak bertan bizi dire**ne**kin,
txalo egin beza landak bertan dauden guz**ti**ekin. R/.

Poztu bitez basoko zuhaitzak, '
Jaunaren aurrean, badatorre**la**ko,
lurra epaitzera dator**re**lako.
Zuzenbidez epaituko du **lur**bira,
eta leialtasunez **he**rriak. R/.

Bigarren irakurgaia (*Tt 2, 11-14*)

San Paulo Apostoluak Titori

Agertu zaigu Jaungoikoaren grazia, gizaki guztion salbamenerako. Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten, eta neurritz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen erakusten digula; zorioneko itxaropenari begira, Jesu Kristo gure Salbatzaile eta Jaungoiko handiaren agertze ospetsua itxaroten dugula. Hark guregatik eman zuen bere burua, gu gaiztakeria guztietatik ateratzeko eta bere herri garbi eta egintza onen zale egiteko.

Aleluia (*Lk 2, 10b-11a*)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

Poz handi baten berri ona dakarkizuet:
salbatzaile bat jaio zaizue gaur:
Mesias, Jauna. R/.

Ebanjelioa (*Lk 2, 1-14*)

(GOIZEKO MEZA)

Lehenengo irakurgaia (*Is 62, 11-12*)

Isaias profetaren liburutik

Horra, Jaunak azken mugetaraino adierazi duena: «Esan Siongo hiriarri: Badatorkizu zeure Salbatzailea; Berekin dakar bere saria; eta

bere aurretik, irabazia. "Herri santu" deituko diete, "Jaunak askatuak"; eta zuri, "Herri maitagarri", "Herria ez utzia" deituko dizute».

Erantzun-salmoa (Sal 96, 1 eta 6. 11-12)

Hi - tza ha-ra - gi e - gin zai - gu. Gu - re - an Ha -
ren bi - zi - le - ku.

Jauna errege da! Alai **bedi** lurbira,
poztu bitez uharte **guztiak**.
Adierazten du ortziak Haren zuzentasuna,
herri guztiek dakuste Haren **edertasuna**. R/.

Argia sortu zaio zintzoari,
alaitasuna bihotz-zuzenari.
Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunaren **engan**,
ospa ezazue Haren **izen** santua. R/.

Bigarren irakurgaia (Tt 3, 4-7)

San Paulo Apostoluak Titori

Jaungoiko gure salbatzailearen bihotz ona eta gizakienganako onginahia agertu zaigunean, salbatu egin gaitu, ez guk egindako zuzenbidezko egintzengatik, baizik eta bere errukiagatik; Espiritu Santua dohain ematen duen jaiotze berriaren garbaldiz eta zaharberritzez; Espiritu hori oparo eman baitugu Jaungoikoak, Jesu

Kristo gure salbatzailearen bitartez. Horrela, onginahi hutsez Jainkoak zuzen egiten gaituelarik, itxaropenez betiko bizitzaren oinordeko egin gara.

Aleluia (Lk 2, 14)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

Aintza zeruetan Jaungoikoari,
eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei. R/.

Ebanjelioa (Lk 2, 15-20)

(EGUNEKO MEZA)

Lehenengo irakurgaia (Is 52, 7-10)

Isaias profetaren liburutik

Bai ederrak direla mendi gainetan, bakea hots egiten duen mezulariaren oinak! Berri ona zabaltzen eta salbamena iragartzen dabilenarenak! Sioni «gure Jaungoikoa errega da» esaten dionarenak! Entzun: zure zaintzaileak oihuka ari dira, irrintzika, guztiak batera; aurrez aurre ikusten baitute Jauna, berriro Siona datorrela. Ekin kantari, guztiok batera, Jerusalemgo horma zahar eroriok; poztu baitu Jaunak bere herria; eta berrerosi du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra; eta lurbiraren bazter guztiek ikusiko dute gure Jaungoikoaren salbamena.

Erantzun-salmoa (*Sal 97, 1. 2-3ab. 3cd-4. 5-6*)

I - ku - si du - te lur mu - ga de - nek gu - re Jain - ko -
a - gan - di - ko ga - rai - pe - na.

Kanta Jaunari kantu berri,
egin baititu hainbat harrigarri.
Bere eskuinak eman dio garaipeña,
bere beso santuak. R/.

Ezagutarazi du Jaunak Beragandiko garaipeña,
agertu du atzerrien aurrean bere zuzentasuna.
Oroitu da bere maitasunaz,
Israel etxeari dion leialtasunaz. R/.

Ikusi dute lur muga denek
gure Jainkoagandiko garaipeña.
Lur osoa, egiozu txalo Jaunari,
egin oihu eta irrintzi, egin eres. R/.

Eresi Jaunari kitarekin,
kitara eta salteri ozenarekin;
turuta eta adar hotsean,
egin txalo errege den Jaunaren aurrean. R/.

Bigarren irakurgaia (*Hb 1, 1-6*)

Hebrearren egindako epistolatik

Askotan eta era askotara hitz egin zien Jaungoikoak Profeten bidez aspalditik gure arbasoei; eta azkenak diren egun hauetan, Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko; eta Beraren bidez egin zuen mundua ere.

Bera da, Aitaren aintzaren argi distiratsu eta Haren izatearen irudi. Berak eusten die gauza guztiari bere hitz indartsuz. Eta bekatuena garbikuntza egin ondoren, goienean Guztiz Handiaren eskuin aldean jarririk dago: zenbat eta aingeruak baino goragoko izena jaso duen, hainbat eta haiek baino gorago jarria.

Izan ere, zein aingeru esan dio inoiz: «Nire Seme zara Zu; Nik zaitut gaur Zu sortu»? Eta beste behin: «Aita izango nau Ni, Hark eta Hura Seme izango dut Nik»? Eta beste behin, bere Semea munduan sartzerakoan, honela dio: «Gur bezate Bera Jaungoikoaren aingeru guztiak».

Aleluia



Egun santu bat zabaldu zaigu:
zatozte, herriak; gurtu ezazue Jauna;
argi handi bat jaitsi da gaur lurrera. R/.

Ebanjelioa (Jn 1, 1-18)

Homiliarako argibideak

Isiltasun gaua

Gizon egin zen hitza artzain apal batzuei azaldu zitzaien lehenengo gau santu hartan. Artzainek fede-erantzuna pertsonalizatzen dute misterioaren iragarpenaren aurrean. Artaldea berehala uzten dute, atsedena eteten dute; dena bigarren mailara pasatzen da Jainkoaren gonbidapenaren aurrean; Mariak jarrera kontenplatiboa eta sakona pertsonifikatzen du, isiltasunean misterioa ikusi eta miresten duenaren jarrera: «Mariak, gauza horiek guztiak gogoan hartzen zituen, eta bere bihotzean hausnartzen zituen».

Badira hitzekin baino hobeto harrapa daitezkeen egiak eta gertaerak, eta horietako bat Gabonak dira. Eguberri kantu askotan agertzen zaigu Jesus, behartsu, berotzeko surik ere gabe. Gabonak guregatik pobre zenaren maitasun-festa gisa agertzen zaizkigu. Zeruko erregea hotzetako eta izotzetako haitzulo batean sortzen da; munduaren sortzaileari zapiak eta sua falta zaizkio. Pobrezia horrek hunkitu egiten gaitu, jakinik maitasunak pobre bihurtu zuela Jainkoaren Semea. Hitz xumeekin, Pablo apostoluak Eguberrien esanahia adierazi digu: «Jesu Kristo Jauna, aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu izateaz zuek aberats egiteko».

Pobrezia-mota ugari daude eta merezi du gogoratzea, beti ondasun materialen pobrezian ez geratzeko. Badira afektu-pobrezia, hezkuntza-pobrezia, munduan gehien maite zuenaz gabetutako pertsonaren pobrezia, bikoteak baztertu duenaren pobrezia; seme-alabarik izan ez duten senar-emazteen pobrezia, fisikoki besteen mende egon behar duenarena. Itxaropen eta poztasun pobrezia. Eta pobrezia triste askoa: Jainkoaren pobrezia.

Badira txirotasunak, norberarenak eta besteenak, eta horien aurka borroka egin behar da indar guztiekin, txirotasun txarrak direlako, gizatasunik gabeak, Jainkoak nahi ez dituenak, gizakien injustiziaren ondorio direnak; baina pobrezia-mota asko ez daude gure mende. Azken horiekin adiskidetu egin behar dugu, ez utzi haiek zapaltzen,

duintasunez eraman behar ditugu. Jesu Kristok pobrezia aukeratu zuen; balio eta itxaropen bat dago bertan.

Bada Eguberri kantu eder bat: “Gabon gaua” izenekoa. Kantu honen mezua ez dago komunikatzen dituen ideietan, sortzen duen giroan baizik: baretasun eta isiltasun giroa, eta guk isiltasunaren behar bizia dugu. «Gizateria –esan zuen Kierkegaardek–, izututa dago». Gabonak gerta daitezke isiltasun, lasaitasun, elkarrizketa edo pertsonetikiko uneak berriz aurkitzeko aukera. Gabonetako liturgiaren testu batek, Jakinduriaren liburukoak (18, 14-15), honela dio: «Isiltasun bareak inguratzen zuen dena eta, gaua bere ibilbidearen erdian zegoela, zure hitz ahalguztiduna atera zen zeruko tronutik», eta San Ignazio Antiokiak Jesu Kristori «Isiltasunetik sortutako Hitza» deitu zion (Magn. 8,2). Gaur ere, Jainkoaren hitza isiltasun pixka bat dagoen lekura jaisten da.

Maria isiltasun maitagarri honen eredu gaindiezina da. Mariaren eta artzainen jarreraren arteko aldea nabaritzen da. Artzainak bidean jartzen dira esanez: «Goazen Betleema eta ikus dezagun zer gertatu den», eta Jainkoa goratuz itzultzen dira, ikusi eta entzun zuten guztia kontatuz. Maria, berriz, isilik dago. Berak «ez du hitzik». Haren isiltasuna ez da isilik egote hutsa; miresentza da, gurtzea da, «erlijio-isiltasuna» da, errealitatearen handitasunak menderatzen duena.

Gabonetako istorio batek hau dio: Eguberri-gauean Haurra gurtzera joan ziren artzainen artean, bazen bat oso pobrea. Hain zen pobrea ez baitzuen ezer eskaintzeko, eta asko lotsatzen zen. Haitzulora iritsita, denak lehiatzen ziren opariak eskaintzeko. Mariak ez zekien nola jokatu guztiak jasotzeko, Haurra besoetan baitzeukan. Orduan, artzain-pobrea esku libreekin ikusita, Jesus eman zion, une batez. Eskuak hutsik edukitzea izan zen haren aberastasuna. Guri ere gerta dakigukeen zortetik ederrena da. Gabon hauetan bihotza hain pobrea, hain hutsa eta isila izanik, Mariak, gu ikustean, Haurra gure esku jar dezala!

Jainkoaren herriaren otoitza

Fedez beterik bat egin dezagun, senideok, mundu zabaleko kristau guztiekin eta egin dezagun otoitz Kristoren jaiotzaz hasitako salbamena lurraren bazter guztietara iritsi dadin:

Erantzuna: **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**



—Eguberriaren misterioa alaitasunez ospatzen ari diren Elizaren seme-alaba guztiak jaio daitezela justiziazko, maitasunezko eta bakezko bizi berri batera. Egigun otoitz. R/.

—Gizaki guztiak Kristo, Jauna, ezagutzera hel daitezen eta Bere inguruan betiko bil daitezen, galduta zeudenak bilatzera eta salbatzera etorria denez. Egigun otoitz. R/.

—Gure giza izatea hartu zuen Jainkoaren Semea izan dadila negar egiten dutenentzat poz, gaixoentzat osasun, hiltzorian daudenen babes eta egun hauetan bakarrik eta triste daudenentzat goiko indar. Egigun otoitz. R/.

—Jai hauetan elkartzen diren gure familietan haz dadin, Jesus, Jainkoaren Seme eta gure Salbatzailearenganako fedea. Egigun otoitz. R/.

Jesu Kristo Jauna, Eguberriaren misterioaren bidez giza familiaren nekeak eta mugak zeure egin dituzu; entzun Zure Elizaren otoitza eta egizu sinets dezagula Aita eta Zu ezagutzeak dakarrela guztiontzat betiko bizia. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Eguberritako I. Prefazioa. (*Meza-liburua: 472. or.*)

Jaunartze-ondorengo otoitza*(Bezpera-arratsaldeko Meza)*

**Janari-edari santuak eman dizkiguzu, Jauna,
sakramentu honetan;
egizu, indarberri gaitzela zure fededunok
zure Semearen jaiotza ospatuz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

(Gauerdiko Meza)

**Pozez gainezka ospatzen dugu, Jainko gure Jauna,
Kristo gure Salbatzailearen jaiotza;
emaguzu santuki bizitzea, harekin bete-betea bat egiteko.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

(Goizeko Meza)

**Poz handiz ospatu dugu, Jauna, zure Semearen jaiotza;
emaguzu misterio honen muina fedez sakontzea
eta maitasun handi eta emankorrez bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

(Eguneko Meza)

**Jainko errukitsua,
gaur jaio den munduaren Salbatzaileak
Jainkoaren seme-alaba bihurtzen gaituen bezala,
egin gaitzala hilezko ere.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirtuarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Jainko guztiz onak, bere Semea gizon egitearekin,
uxatu ditu munduko ilunpeak,
eta Maria Birjinagandik jaiotzearekin
argitu [gau] egun santu hau:
uxa ditzala berak zuengandik bekatuaren ilunpeak
eta zuen bihotzak bere graziaren distiraz argitu. R/. Amen.**

**Kristoren jaiotza salbagarriaren berri
artzainei aingeruen bidez eman zienak
bete dezala bere pozez zuen bihotza
eta egin zaitzatela bere Berri Onaren zabaltzaile. R/. Amen.**

**Bere Semearen gizon egiteaz
zeru-lurrak bat egin dituenak,
bete zaitzatela bere bakeaz eta gogo onez,
eta eraman zeruko Elizarekin bat egitera. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.